

PASAIKO UDALAK EZ DIE OLENTZERORI, MARIDOMINGIRI ETA ERREGE MAGOEI INOLAKO HARRERARIK EGITEN UTZIKO

- Trintxerpeko jai batzordeak eta bere erakunde laguntzaileek harrera horiek ahalik eta segurtasun handienarekin egiteko protokoloa aurkeztu duten arren, Udalak ezezkoa eman du, eta Udaltzaingoaren txosten negatiboak eskatu ditu horretarako.
- Batzordea eta haren erakunde laguntzaileak oso haserre gaude; izan ere, uste dugu egiten ari garen lana ez dela baloratzen eta udalaren babesa barregarria dela.

Ohar honen bidez, Jai Batzordearen eta entitate laguntzaileen kide garen heinean, gure ezinegona adierazi nahi dugu Pasaiaiko Udalak Jai Batzorde honek eta erakunde laguntzaileek Trintxerpeko barrutian gabonak modu seguru eta parte-hartzailean ospatzeko egindako proposamenen aurrean erakutsi duen jarreraren aurrean.

Eusko Jaurlaritzak ezarritako baldintza guztiak betetzen dituen segurtasun-protokolo batean lan egin ondoren, eta ekitaldia egiteko bi egun falta direnean, Pasaiaiko Udalak ezezkoa eman digu. Ez dute baimendu nahi Olentzerok, Maridomingik eta Errege Magoek trintxerpetar neska-mutilak hartzea. Ezezko hori emateko arrazoi bakarra hau da: "Ezin dute horrelako ekitaldirik baimendu, presentzia fisikoa duen edozein ekitaldik osasunari dakarzkion arriskuengatik".

Harritu egiten gaitu, udal honek berak baimena eman baitu Gabonetan eta espazio itxietan haurrentzako antzerkiak edota musika ekitaldiak egiteko. Kasu honetan, bi proposamenek – Olentzerorenak eta Erregeenak – haurren sarbide mailakatua aurreikusten zuten, aurrez hitzordua hartzeko sistema bat ezarriz, aireztapena bermatuz, guneak garbitzeko eta desinfektatzeko neurriak ezarriz, edukiera kontrolatuz eta sarrerak eta irteerak kontrolatuz, pilaketak saihesteko. Berrito diogu, gaur egun edozein ekitaldi egiteak eskatzen dituen neurri guztiak betetzen zituen eta, gainera, egun horretan dena ondo atera zedin lan egiteko prest zeuden boluntarioen laguntza zabala zuen proposamenak.

Gainera, azpimarratu nahi genuke herri askotan antolatu dituztela harrera horiek, eta guztietan betetzen direla segurtasun- eta higiene-arauak eta horrelako ekitaldietarako indarrean dagoen legeria, baita Eusko Jaurlaritzaren azken dekretuak ere. Zergatik beste udalerrri batzuetan bai eta Pasaian ez?

Jai Batzordea garen aldetik, Trintxerperen alde eta Trintxerperentzat lan egin dugu beti, gure auzokide guztien gozamenerako, eta konfiantza osoa dugu gure auzokide txikiengan, hau da, aurten ia guztiari uko egin behar izan dioten eta egokitze eta onarpen ordainezinaren lekzioa eman diguten umeengan. Haurren ilusioari eustea da gure helburu bakarra, eta badirudi gure udalari ez zaiola batere axola.

Horregatik, aditzera eman nahi dugu Trintxerpeko Jai Batzordetik Gabon berezi hauek animatzeko ekitaldiak egiten saiatu garela, xumeak baziren ere. Berrito diogu, indarrean dauden segurtasun-neurri guztiak errespetatuz, eta Pasaiaiko Udalaren aldetik jaso dugun gauza bakarra planteatutako guztiari trabak eta trabak jartzea izan da.

Jasota gera dadin eta dagokion lekuan ondorioak izan ditzan.

Pasaian, 2020ko abenduaren 23an

TRINTXERPEKO JAI BATZORDEA ETA ELKARTE LAGUNTZAILEAK

EL AYUNTAMIENTO DE PASAIA NO HA PERMITIDO QUE OLENTZERO, MARIDOMINGI Y LOS REYES MAGOS HAGAN NINGÚN TIPO DE RECIBIMIENTO

- Pese a que la comisión de fiestas de Trintxerpe y sus entidades colaboradoras han presentado un protocolo para hacer con la mayor seguridad posible estos recibimientos, el Ayuntamiento ha dado su negativa escudándose, para ello, en informes negativos por parte de la Guardia Municipal.
- La comisión y sus entidades colaboradoras estamos muy enfadadas ya que consideramos que el trabajo que estamos realizando no se valora y el apoyo institucional que tenemos es irrisorio.

Por la presente queremos expresar nuestro profundo malestar ante la actitud del Ayuntamiento de Pasaia frente a las propuestas realizadas por esta Comisión de Fiestas y entidades colaboradoras para celebrar la Navidad de manera segura y participativa en el distrito de Trintxerpe.

Tras haber trabajado en un protocolo de seguridad que cumple con todos los requisitos expuestos por el Gobierno Vasco y a dos días de la celebración del evento, el Ayuntamiento de Pasaia nos ha dado un no por respuesta. No quieren permitir que el Olentzero, Maridomingi y los Reyes Magos reciban a los y las niñas trintxerpetarras. El único motivo que aportan para esa negativa es que “no pueden autorizar ningún acto de estas características por los riesgos inherentes para la salud que pueden producirse con la celebración de cualquier acto con presencia física”.

Nos sorprende, ya que este mismo Ayuntamiento sí haya dado permiso para la celebración en estas Navidades de teatros infantiles en espacios cerrados o conciertos de música. En este caso, ambas propuestas – la del Olentzero y la de los Reyes –, contemplaban un acceso escalonado de los y las niñas, estableciendo un sistema de cita previa online, medidas de aireación, limpieza y desinfección de espacios, control de aforos, y control de entradas y salidas para evitar aglomeraciones. Insistimos, cumplía con todas las medidas que requiere a día de hoy la realización de cualquier evento y además contaba con una amplia colaboración de gente voluntaria que estaba dispuesta a trabajar ese día para que todo saliera bien.

Además, nos gustaría recalcar que en muchos pueblos han organizado este tipo de recibimientos y que en todos ellos se cumple con las normas de seguridad e higiene y con la legalidad vigente para este tipo de eventos, también con los últimos decretos del Gobierno Vasco. ¿Por qué en otros municipios sí y en Pasaia no?

Como Comisión de Fiestas hemos trabajado siempre por y para Trintxerpe, para el disfrute de todos nuestros/as vecinos y vecinas, y confiamos firmemente en nuestros y nuestras vecinas más pequeñas, los y las niñas, esos que han tenido que renunciar a casi todo durante este año y nos han dado un ejemplo de adaptación y aceptación impagable. Mantener la ilusión de los y las niñas es nuestro único objetivo, ilusión que a nuestro consistorio parece no importarles.

Es por ello que queremos hacer público que desde la Comisión de Fiestas de Trintxerpe hemos intentado realizar actos que animen, aunque sea un poco, estas peculiares Navidades, insistimos, respetando todas las medidas de seguridad vigentes, y lo único que hemos recibido por parte del Ayuntamiento de Pasaia son trabas y pegas a todo lo planteado.

Para que conste y surta efecto donde proceda.

En Pasaia, a 23 de Diciembre de 2020

COMISIÓN DE FIESTAS DE TRINTXERPE Y ENTIDADES COLABORADORAS